

GASTEIZKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAKO KALITATE BATZORDEAREN ARAUTEGIA

HITZAURREA

Arautegi honek Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Kalitate Batzordearen funtzionamendua arautzea du helburu.

Eskolako Kalitate Batzordea Ikastegiko Batzarrak izendatutako batzordea da. Zuzendaritza taldearekin batera, Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren plangintza eta jarraipen zereginetan dihardu, eta gainera barne komunikaziorako tresna da kalitate sistema honen politika, helburu, plan, programa, erantzukizun eta lorpenen inguruan. Ikastegiko Kalitate Batzordea, bestalde, Ikastegiko zuzendaritza taldeari eta Ikastegiko Batzarrari laguntza eta aholkularitza eskainiko dien organoa izango da, titulu guztien curriculum garapenaren plangintza eta jarraipena egin ahal izateko. Horretarako, gaitasunetan oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntza ereduari erreparatuko dio; bertan, hainbat metodologia aktiboren bitartez eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren laguntzarekin, autogidatutako irakaskuntza (bakarkakoa zein taldekakoa) eta etengabeko ebaluazioa sustatuko dira, irakaskuntza eleaniztunaren testuinguruan. Era berean, Ikastegiko Kalitate Batzordea arduratuko da txostenak bidaltzeaz, gerora irakasle guztiak ebaluatu ahal izateko.

Ikastegiko Batzarra UPV/EHUko ikastegietako ordezkarietarako eta gobernu arrunterako kide anitzeko organoa denez, bera arduratuko da ikastegiko kalitate politika eta helburuak onartzeaz eta Kalitate Batzordearen eraketa, osaera eta funtzioak onartzeaz. Era berean, Ikastegiko Batzarra arduratuko da tituluetarako hobekuntza-ekintzak onartzeaz, Graduako Tituluen Kalitatea Bermatzeko Sistemaren esparruan, Kalitate Batzordeak aurkeztutako ebaluazio txostenak aintzat hartuta, besteak beste.

1. artikulua.- Arautegiaren helburua.

1.- Oinarrizko arautegi honen helburua, hain zuzen, ikastegiko Kalitatearen Barne Bermerako Sistemaz (KBBS) arduratuko den organoaren egitura, osaera eta funtzioak ezartzea da.

2.- Aipatutako organo horri Ikastegiko Kalitate Batzordea izena jarriko zaio.

2. artikulua.- Araubide juridikoa.

Gasteizko Irakasleen Eskolako Kalitate Batzordeak arautegi honen arabera eta dagozkion gainerako arautegiei jarraiki jardungo du.

3. artikulua.- Eginkizunak.

1.- Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Kalitate Batzordeak eginkizun hauek ditu:

*Versión de propuesta modificada: Aprobado texto definitivo Junta de Escuela de la Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria-Gasteiz el 23 de septiembre de 2010

- a. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) diseinua, ezarpena, abian jartzea eta jarraipena bultzatzea.
- b. Prozesuei jarraipena egitea dagozkien adierazleen bitartez.
- c. Eskolako zuzendaritza taldeari batzordearen proposamenak aurkeztea.
- d. Ikastegiaren urteko helburuak jaso eta, behar denean, haien formulazioa koordinatzea, eta helburuok betetzeko prozesuari jarraipena egitea.
- e. Gogobetetze inkesten emaitzak jasotzea eta haietatik abiatuta hobekuntzak proposatzeko irizpideak ematea.
- f. Urteko jarraipen txostena egitea Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren azterketa eta berrikuspenetik abiatuta, eta hobekuntza ekintzak proposatzea titulaziorako ezarritako helburuak betetzeko.
- g. Tituluaren egiaztagiria lortzen eta aldiro berritzen laguntzea.
- h. Ikastegiko kalitate politika eta helburuen berri emateko tresna izatea, eta helburuok bete daitezen eta unibertsitateko kideen artean zabal daitezen bermatzea.
- i. Titulazioko curriculuma garatzeko plangintza eta haren zehaztapena egiten laguntzea.
- j. Ikastegiko irakasleek gradu berrietako curriculuma hobeto garatzeko tresnak eta metodologiak ikas ditzaten sustatzea.
- k. Eskolako kideek eta interes taldeek kalitateari eta ebaluazioari buruzko prestakuntza har dezaten bultzatzea.
- l. Ikastegiko zuzendaritzari aholkua ematea Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari dagozkion gaietan.
- m. Ikastegiko Batzarrari bere eskumenen eremuko erabaki proposamenak aurkeztea.
- n. Egokia denean batzorde espezifikoen eraketa sustatzea.
- o. Estatutuetatik eta haien garapen arautegietatik emanda datorren edo Eskolako Batzarrak emandako edozein eginkizun.

4. artikulua.- Osaera.

1.- Hauek izango dira Kalitate Batzordearen kideak:

a. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Zuzendaritza Taldeko hiru ordezkari. A priori, zuzendariak gain, Berrikuntza eta Kalitateko eta Antolaketa Akademikoko arloan ordezkatuak egongo dira.

b. Zentroko sail atalek proposatutako Irakasle eta ikertzaileen lau ordezkari, Eskolako zuzendaritza taldeak aukeratuta. Sail atal bakoitzak gehienez bi ordezkari aukeratu ahaliko ditu. Zuzendaritza taldea izango da proposamenen artetik lau kide aukeratuko dituenak, Kalitate Batzordearen lan arloarekin erlazionaturik dauden egokitasun eta egokiera irizpideak oinarritz hartuta. Ahal den neurrian, Irakasle eta Ikertzaile hauek Zuzendaritza Taldetik kanpo egotea saiaturiko da.

*Aldatutako proposamen bertsioa: Azken testua onartuta. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren Batzarra, Gasteizen, 2010eko irailaren 23an.



c. Titulazioen koordinatzaileak, badaude.

d. Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaria, hobe kalitatearen arduraduna bada.

e. Ikasleen bi ordezkari Eskolako ikasleen kontseiluak proposatuta.

2.- Ahaleginak egingo dira oreka egon dadin ordezkari gizonezko eta emakumezkoen artean.

3.- Kalitate Batzordeko burua eskolako zuzendaria izango da, edo horretarako eskuordetzea daukan pertsona. Ikastegiko Kalitate Batzordeak berak erabakiko du bere kideen artetik nork jardungo duen idazkari lanetan.

4.- Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu Kalitate Batzordeko kideak, Zuzendaritza Taldeak halaxe eskatuta. Izendapenak lau urteko iraupena izango du. Ikasleen kasuan, beren ordezkariak bi urteko iraupena izango du, eta iraupen hori luzatu ahalko da.

5.- Eskolako Kalitate Batzordearen irizpideek eta jardunak jarraipena izan dezaten, kideen erdiak baino ez dira aldatuko batzordea berritzen den bakoitzean, eta hori bi urterik behin izango da.

5. artikulua.- Laguntza batzordeak.

1.- Kalitate Batzordeak, laguntza batzordeak osatuko ditu behar izanez gero (--) eta/edo Zentroan jada existitzen direnei aholku eskatuko die. Kalitate Batzordeak berak osatzen baditu, bere menpe egongo dira eta aholkurako izango dira. Kalitate Batzordeak honako hauek zehaztuko ditu batzorde bakoitzerako: osaera, batzordeko burua eta idazkaria nortzuk izango diren; jarduera arloa eta eginkizunak; eta, behar izanez gero, bere funtzionamenduaren berezitasunak.

2.- Edonola ere, curriculum garapenez arduratzen diren bi batzorde egongo dira, bat Haur Hezkuntzarako eta beste bat Lehen Hezkuntzarako. Batzorde hauek osatzean bete beharko dira unibertsitateko sektore guztiak Kalitate Batzordean ordezkatuta egoteko irizpideak. Mailako edo moduluko koordinatzaileak batzorde hauetako kide izan beharko dira.

3.- Era berean, batzordea eratu ahal izango da, irakasleen Irakaskuntza Ebaluatze Programaren (Docentiaz) informazio iturri moduan. Batzorde hori osatzean ere bete beharko dira unibertsitateko sektore guztiek Kalitate Batzordean ordezkatuta egoteko irizpideak; nolana ere, derrigorrezkoa izango da ikastegiari atxikitako sailletako edo sail ataletako ordezkariak egotea batzordean.

6. artikulua.- Funtzionamendu erregimena.

a) Bilerak eta bileretarako deiak.

1. Bileretarako deiak ohikoak eta ezohikoak izango dira.

2. Deialdiak ohiko bileretarako egin behar dira oro har. Kalitate Batzordeak gutxienez ohiko bilera bat egingo du hilabetean.

3. Ezohiko bilera egingo da bileran aztertuko den gaiak hala eskatzen duenean eta, baita ere, dagokion arautegian hala xedatutako kasuetan. Ezohiko bileretako aztergaien zerrendan ez dira agertuko gai hauek: aurreko akten onspena eta galde-eskeak.

*Aldatutako proposamen bertsioa: Azken testua onartuta. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren Batzarra, Gasteizen, 2010eko irailaren 23an.

4. Presazko bilerak ezohikoak dira eta deia 24 ordu lehenago egin behar da gutxienez. Halakoetan, bilera egiteko arrazoia benetan premiazkoa dela onartu beharko da bileraren hasieran. Berresten ez bada, bilera bertan behera geratuko da besterik gabe.

b) Bilerarako deia egitea.

1. Kalitate Batzordeko buruak egin behar du batzordearen bilerarako deia.

Dena dela, kideen herenak hala eskatzen badu, bilerarako deia egin beharko da. Bilera ezohikoa izango da eta gehienera ere zazpi egun balioduneko epean egingo da, eskaera egiten denetik hasita.

2. Bilerarako deiak Batzordeko idazkariak bideratu behar ditu, aurrerapen nahikoaz eta, edonola ere, bilera baino hiru egun lehenago gutxienez. Bilera non egingo den, zein ordutan eta bertan zein gai aztertuko diren adierazi behar da deialdian. Aztergaiari buruzko dokumentazioa organoko kideen esku egon behar da, aurrerapen nahikoaz eta, edonola ere, bilera baino 24 ordu lehenago.

3. Edonola ere, aztergaiak zehatz jasoko dira deialdian. Deia baino lehenago aurkeztuko balitz batzordeko kideen % 10ek gutxienez sinatutako eskari bat aztergaiaren bat gehitzeko aztergaien zerrendari, halaxe egin beharko da. Aztergaietan agertzen ez diren puntuei buruzko erabakirik ezingo da hartu, baina organoko kideen bi heren baino gehiago badaude bileran, eta botazioa eginda gehiengo osoak gaia premiazkoa dela uste badu, erabakia hartu ahal izango da.

c) Kide izatea eta leku hutsak betetzea

1. Kalitate Batzordeko kide izatea norberari dagokion ezaugarria da eta ezin da beste inoren gain utzi. UPV/EHUko Estatutuetoako 288. artikuluan aipatutako egoeretan utziko dio organoko kide batek kide izateari.

2. Leku hutsak betetzea 4. artikuluan erabilitako jarduera jarraibideen arabera egingo da.

d) Kalitate Batzordeko kideen eskubideak eta betebeharrak.

1. Kalitate Batzordeko kideek batzordeko bileretara joateko eskubidea eta joan beharra daukate, eta arautegi honek esleitutako eginkizunak betetzeko. Bileretara joanez gero, batzordeko kideek ez dituzte unibertsitateko gainerako eginkizunak bete behar, baina kasuan kasuko organoek beharrezko neurriak hartu behar dituzte betebeharrak horiek bete egiten direla eta zerbitzua eman egiten dela bermatzeko.

2. Kide anitzeko organoa osatzen dutenek eskubidea dute beren eginkizunak betetzeko behar duten dokumentazioa eta informazioa erregistroan eskatu eta eskuratzeko. Kideen lana errazteko, Zuzendaritza Taldeak Zuzendaritzan ipiniko du informazio hori haien esku.

3. Zentroko Kalitate Batzordeko kideak bezala, kargu mota hauentzako indarrean dagoen Araudiaren partez aitormena jasoko dute.

e) Kide anitzeko organoaren osaketa

*Aldatutako proposamen bertsioa: Azken testua onartuta. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren Batzarra, Gasteizen, 2010eko irailaren 23an.



1. Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa bertan egotea lehen deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Lehen eta bigarren deialdiaren artean egon beharreko tartea bost minutukoa izango da gutxienez eta 60 minutukoa gehienez. Edonola ere, organoko burua eta idazkaria beti egon beharko dira edo, bestela, euren ordezkioak.

2. Arrazoirik egonez gero bileran ezin egon daitezkeenek, haien botoa kide anitzeko organoko beste kideei eskuordetu ahal izango diete. Kide anitzeko organoko kide bakoitzak eskuordetutako boto bakarra egin ahalko du. Quorum osagarria lortu behar bada, boto eskuordetzeak ez dira zenbatuko.

Eskuordetzea idatziz bideratu behar da eta eranskin gisa gehituko dira bilerako Aktara.

3. Batzordea bigarren deialdian eratzeko beharrezkoa izango den quoruma beharrezkoa izango da bozketa guztietan.

f) Bileren nondik norakoak.

1. Kide anitzeko organoko buruak bilera behar bezala antolatuko du eta, horretarako arrazoirik egonez gero, bertan behera utzi ahal izango du.

2. Eztatidak gai zerrendari jarraiki egin behar dira. Dena dela, beharrezkoa izanez gero, kide anitzeko organoak bileraren ordena aldatzea erabaki dezake, organoko buruak egindako proposamenari jarraituz.

3. Beharrezko jotzen badu, organoko buruak gaia bozkatu aurreko eztabaidaren denbora muga dezake, bai eta ordura arte egon daitezkeen parte hartzeen kopurua ere.

4. Kide anitzeko organoko kideek aktan agerrarazi ahal izango dute euren botoa eta horren azalpena. Azalpen hori idatziz eman beharko dute botazioa egitean. Unibertsitateko beste organo batzuei egindako proposamenak badira, kideen boto partikularrak beti agerraraziko dira haiekin batera.

5. Egoki deritzatenean, kide anitzeko organoko buruak kide ez diren pertsonak gonbida ditzakete bileretara, gai-zerrendako punturen batekin zerikusia duen iritzia edo informazioa eman diezaioten Kalitate Batzordeari. Aktan jaso egingo da bileran gonbidatuak izan direla, botoa emateko eskubidea izan ez arren.

g) Botazioa

1. Batzordearen erabakiak bileran daudenen botoen gehiengoaz hartuko dira. Batzordeko buruak kalitateko botoa izango du. Batzordearen erabakiak ez dira nahitaez bete beharrekoak izango. Ikastegiko dekanotzara bidali beharko dira dagokien neurriak har ditzan.

2. Botazioa isilpekoa izango da kide anitzeko organoko kideren batek eskatzen duenean. Dena dela, botazioa beti izango da isilpekoa pertsonen buruzkoa denean.

3. Aurkako botoa ematen dutenek eta horretarako arrazoia azaldu, ez dute erantzukizunik izango kide anitzeko organoak hartutako erabakietan. Halaber, abstenitzen direnak erantzukizunetik salbuetsita geratuko dira. Botazioa isilpekoa bada, interesatuak boto txartela emango dio organoko idazkariari botazioko unean eta, txartelarekin batera, emandako botoaren arrazoia azaltzen duen testua. Boto txartela eta testua aktari erantsiko zaizkio.

h) Bileretako aktak

1. Idazkariak bileretako akta egin behar du. Akta hurrengo bileran onartu behar da, eta haren zirriborroa bilera horretako gai zerrendari dagozkion dokumentuekin batera banatuko da. Akta onartu ostean, idazkariak sinatu eta batzordeko buruak ontzat eman beharko du.

2. Aktan honako hauek jasoko dira nahitaez: bilerara etorri direnen eta etorri ez direnen zerrenda; aztergaien zerrenda; bileraren tokia eta ordua; bileran aztertutako puntuak; botazioak (nola egin diren) eta emaitzak; hartutako erabakien edukia eta, egokitzat ikusiz gero, arrazoiaren azalpen laburra.

3. Aktan boto partikularrak ere jasoko dira, kide anitzeko organoko kideek hala eskatzen badute. Kide anitzeko organoko edozein kidek

*Aldatutako proposamen bertsioa: Azken testua onartuta. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren Batzarra, Gasteizen, 2010eko irailaren 23an.



eskatu ahal izango du bere parte hartzea edo proposamena hitzez hitz jasotzeko aktan. Horretarako, idatziz aurkeztu beharko du testua, eskaera egin eta segituan edo, bestela, organoko buruak esaten dion epean.

4. Kide anitzeko organoko kideek aktan aldaketak egiteko proposamenak egin ahal izango dituzte akta onartzeko unean. Idazkariak egiaztatu egin behar ditu proposatutako aldaketak eta, gehiengoak aldeko botoa ematen badu, onartu egin behar dira.

5. Kide anitzeko organoa aldatu baino lehen, bilera egin behar da onartzeke dauden akta guztiak onartzeko. Bilera hori egitea ezinezkoa bada, akten zirriborroak bidali behar zaizkie kide anitzeko organoko kide zirenei, eta hamar eguneko epea eman haien edukiari buruzko erreklamazioak egiteko. Ez bada aurkezten erreklamaziorik esandako epearen barruan, aktak onartutzat emango dira; erreklamaziorik aurkeztuz gero, Kalitate Batzorde aldatuak egingo duen lehen bileran onartu beharko dira aktak.

6. Aktak onartu ondoren jendaurrean jarriko dira, pertsonen nortasuna babestuta, informazio instituzionalerako erabiltzen den iragarki oholean eta web orrialdean, abenduak 13ko, Izaera Pertsonalen Datuen Babespenerako 15/1999 Lege Organikoari jarraituz. Gero batzordeko idazkaritzan artxibatuko dira eta hor geratuko dira eskolako kideen esku, kontsultatu nahi balituzte.

Lehenengo xedapen gehigarria. Kideen erdiak batzordea eratu eta bi urtera aldatuko dira lehen aldiz.

Bigarren xedapen gehigarria. Batzordeetako kideek isilekotasun betebeharra izango dute, batez ere datu pertsonalei dagokienez.

Era berean, batzordeek datu pertsonalen fitxategiak sortu eta erabiltzean men egin beharko diote datu pertsonalak babesteari buruzko arautegiari.

Azken xedapena. Arautegi hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean.